

## IKERKETA DOKUMENTALAREN ERRUBRIKA

Ikaslearen izena: \_\_\_\_\_

ARLOAK	4	3	2	1
<b>Informazio-kantitatea</b>	Gaiarekin erlazionatutako informazio-iturri asko eta era askotakoak erabiltzen ditu (bibliografia, webgrafia, elkarrizketak...).	Informazio-iturri asko eta era askotakoak erabiltzen ditu (bibliografia, webgrafia, elkarrizketak...), baina guztiak ez dute informazio garrantzitsua ematen.	Informazio-iturri gutxi erabiltzen ditu eta ez oso desberdinak, nahiz eta guztiak gaiarekin erlazionatutakoak diren.	Iturri gutxi kontsultatu dira, ez dute informazio nabarmenik ematen eta batzuk ez daude gaiarekin erlazionaturik.
<b>Informazioaren kalitatea</b>	Iturri guztiak dira kalitate handikoak eta fidagarriak, eta eguneratuta daude. Irudiak, grafikokoak, marrazkiak eta abar ere erabiltzen dira informazioa osatzeko; informazio gehiago ematen dute elementu horiek eta testuari ñabardurak gehitzen dizkiote.	Informazio-iturri gehienak kalitatezkoak eta fidagarriak dira, eta eguneratuta daude. Informazioa irudi, grafiko edo marrazkiren batekin osatzen da. .	Kontsultatutako informazio-iturri batzuk ez dira fidagarriak, edo ez daude eguneratuta. Baliabide osagarriek (irudi, grafiko, marrazkiek) ez dute informazio aipagarririk ematen.	Kontsultatutako informazio-iturriak ez dira fidagarriak, edo ez daude eguneratuta. Ez ditu baliabide osagarriak erabiltzen (irudi, grafiko, marrazkiek), eta erabiltzen direnek ez dute informazio aipagarririk ematen.
<b>Ondorioak eta funtsezko ideiak</b>	Behar bezala erantzuten dio egindako galderari/aurkeztutako erronkari. Gaiaren funtsezko ideia zein den argi adierazten du, hiztegi egokia erabilia, eta galdera gehiago sortzen ditu	Behar bezala erantzuten dio egindako galderari/aurkeztutako erronkari. Ideiak argi eta erraz adierazten ditu	Galderari/erronkari erantzuten dion arren, era nahasian eta zehaztugabearen ematen ditu ondorioak.	Galderari/erronkari ez dio behar bezala erantzuten, eta ez ditu gaiaren funtsezko ideiak identifikatzen.
<b>Aurkezpena</b>	Informazioa oso ondo antolatuta eta idatzita dago. Ez du ez akats gramatikalik, ez ortografikorik, ez puntuazio-akatsik. Ideia nagusiak nabarmentzen ditu eta gaia ulertzen laguntzen duten baliabideak erabiltzen ditu.	Informazioa ondo antolatuta eta idatzita dago. Ez du ez akats gramatikalik, ez ortografikorik, ez puntuazio-akatsik.	Informazioa antolatuta dago, baina idazteko moduari dagokionez, zenbait akats gramatikal, ortografiko edo puntuazio-akats ditu.	Informazioa ez dago antolatuta, eta idazteko moduari dagokionez, zenbait akats gramatikal, ortografiko edo puntuazio-akats ditu.

